



## BALIO PROPOSAMENA

Pertsona bat, bere bizitza profesionala amaitu ostean bizitzako beste etapa batean sartzen da eta askotan ez da erraza izaten egokitzapen hori, batez ere harreman sozial horiek aurretik landu ez badira eta bakarrik sentitzen bada. Zahartze aktibo eta osasuntsua izateko oso garrantzitsua izaten da harreman sozial horiek lantzen jarraitzea. Gure enpresak aukera ematen die pertsona guzti horiei euren abilezia, gustu eta helburuak taldean garatzeko eta komunitate bateko kide sentitzeko. Enpresaren helburua da beraz, bezeroen ongizatea hobetzea, aktibo eta komunitate bateko kide sentituz.



Enpresak eskaintzen duen zerbitzua pertsonalizatua izango da, pertsona bakoitzaren gustu eta beharrietara doitua. Gure enpresa zerbitzu pertsonalizatu hori emateko pertsona aproposenekin osatuta dago. Hauxe izango da gehienbat beste enpresetatik bereiziko gaituena.

